



ELEBERRIA

ISBN: **978-84-18252-62-4**
ORRIALDEAK: **416 (inguru)**
FORMATOA: **12 x 19**
PREZIOA: **22,00 €**

Urte antz behar izan ziren Gerrako umeak aintzat hartzeko. Gaur egun, Santurtzin, Eibarren eta beste hainbat herritan badute beren tokia paisaian, eta bateko zein besteko Aldundiek omenaldiak egin dizkiete. Intxorta 1937 taldeak ume gipuzkoarrak identifikatzeko ikerlan bat egin zuen, eta Ahotsak atariak ebakatu zituzten haur horietako batzuen testigantza ere bildu du, sarean entzungai dagoena. Beste ahots ugari, protagonistak hil ahala galduko dira; horregatik ere, nobelatua izanagatik, Adriano de Mataren liburu hau lekukotza historiko aberatsa da.

SANROKEETARAKO, ETXEAN

Adriano de Mata

IRAILA
2021

1937ko maiatza. Erresuma Batuak inoiz jasotako errefuxiatu-olderik handiena Southamptongo portuan lehorretzear da, eta inork ez du halako gertakizun bat huts egin nahi. Santurtzitik atera den itsasontzian, *Habana* izenekoan, ia lau mila haur, eta horien artean Pirmin, Eusebio eta Aurea lekunberritar anai-arrebak. Sanrokeetarako etxean izanen direla, hala esan diete portuan agurtu berri dituzten gurasoek, negarrik ez egiteko, errepublikazaleek gerra laster irabaziko dutela eta berehala elkartuko direla berriz Debako amaxirenean, urtero bezala, jaiez gozatzen. Anai-arreben ibileren bidez eta erbeste hartan alde edo moldez parte hartu zuten beste hainbat ahotsen bidez iritsiko zaizkigu sanrokeak lekutan utzi zituen egonaldi hari buruzkoak. Gerratik ihesi, beste gerra batzuk ezagutu baitzituzten ume haietako askok.



ADRIANO DE MATA ARAGONESES

1984 Deustu (Bizkaia, Euskal Herria) Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi zuen Gasteizen, Heidelberg eta Bartzelonan. Bergarako nahiz Bartzelonako idazle-eskoletan ibili eta gero, *Sanrokeetarako, etxean* du lehen eleberria. Horrez gain, katalanez ere beste nobela bat idatzi du (argitaratu gabea). Oso gustuko du bidaiatzea eta hizkuntzak ikastea; katalanaz gain, galesa ere ikasi du, eta, berriki, innuera. Zenbait urtez itzultzaile eta hizkuntza-irakasle lanetan ibili ondoren, une honetan postaria da Montrealen (Quebec).



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus